


Iritziak



Euskararen irakaskuntzarako proposamen zenbait

Pako Sudupe

Iragan Uztailaren 20ko «Eguna»ko artikulua («AEK kontrola eta borroka, autonomiaren eta profesionaltasunaren kontra») gogoetarako gaia eskaini dit, eta, batetik, artikulua horri darion aideak eta, bestetik, euskararen irakaskuntzan dudak eskarmentuak horretaraturik, ondoren dihoazkizue zenbait kontsiderazio eta proposamen euskal kulturaren onerako direlakoan; bereziki, euskara irakasleoi zuzenduak, erantzunaren zain geratzen naizela.

Nagokion artikulua honen gaia, alfabetatze mugimendua delarik, 1966an eta Euskaltzaindiaren babesean sortu zenetik gaurdaino izan duen bilakaera, hain zuzen, beste auzi askoren artean (eta, beharbada, ez artikulua ardatz baina niri dagokidanerako bai) bada hor mezu bat behin baino gehiagotan agertzen dena: batzuk, AEKn jakina, irakaskuntz bide normalera jotzen ari direnean, besteek mobidari eusteari eta jendea esnatu eta oldartzeari garrantzia gehiago ematen diotela euskara irakasteari baino. Gainera, azken hauek nagusi direnetara ez omen da euskara, nahitaez, ikastera beharturik dagoenik hurbiltzen (zilegi bazait, Arturo Campion euskaltegiak espreski dioena bestetara hedatzea).

Aurreko hau aurreiritzirik gabe irakurtzen duena, ohartuki ala oharkabean, honelatsu pentsatzera lerratuko dela derizkiot: Bai, bai, horrela behar du, politikak urruti egon behar baitu eskolatik, horra jendea euskara ikastera joaten da ez manifestapenak antolatzen. Konforme, bat nator, baina ... gauzak ez dira hain ximpleak, teorian bai baina praktikan hori baino konplexuago dira. Edukiozue begia ondoren diodanari!

Gauza jakina da, gero eta gehiago direla euskara ezinbesteko zaielako ekiten diotenak euskarari bai alfabetatzera datozenen artean eta halaber, euskalduntzera datozenetan. Alfabetagai mugaturik, asko maisu-maixtrak dira heuren klaseak, maiz, gazteleraz ematen dituztenak. Beste sail polita, 17-20 urte inguruko ikasleek osatzen dute, nahiz euskaldunak izan euskaraz baino maizago erdaraz mintzo direnak eguneroko solasaldietan eta hauek gain, funtzionari izan eta beren hizkuntz «profil»a iritsi nahi dutenak gero eta ugariago izango ditugu, zorionez. Honelatsuko oreka aurrean izanik, ze nolako opila moldatu behar dugu euskara irakasleok?

Beren hizkuntz ohiturak oso ere gaz-

telaniara lerraturik izan eta EGA ezer baino gehiago gaintitu beharreko oztopo zaienen aurrean edota giroa, hain kontrako izan gabe ere, aldekoa ere ez denean zer egin behar dugu? Profesional aseptiko eta ariketa emale-zuzentzaile huts bihurtu? Tori ariketa mordoa. Ahalera: ziezaioketen, zeniezaguketen; sinonimoak lantzeko ariketak: etsai, arerio, izterbegi; aukera anitzeko galderak, testuak dioenari baino areago aukerei begiratzen zaie, azkenean 1a, 2b, 3c, horrela bukatzen dela. Burutu eta zuzendu, ia beti presaka. Dinamika horrek izan behar al du nagusi klaseetan? Irakasle profesional, apolitiko eta kualifikatuaren lekukotzarik onena dinamika hori al da?

Euskara irakaslearen egitekoa ez da, zalantzarik gabe, ezein partidu edo alternatibaren propaganda-gune bihurtzea euskaltegiak, baina bai, horratik, euskal kontzientzia eta kulturaren aldeko isuria txertatzea ikasleengan. Gurea bakarrik ez, baina, gurea ere bai.

Ongi mailakaturik eta gagozkion taldeari egokiturik, neurri txikitik baina ongi hautatueta (irakaslearen esku geratu beharko luke aukeraketak, honi interesgarri ez bazaio nekez gertatuko baitzaio gustagarri ikasleari) euskal literatura idatziaren berri eman beharko genuke eta nola ez ahozko literaturarena abestiekin batera, azken honetan bestean ez bezala, edonorena bezain

duina baita gurea. Honekin batera Euskal Herriaren historia jorratzen ere ahalegindu beharko ginbateke, oso gaitetik bada ere. Izan ere, adin batetik gorako jendeak ikasketak erdaraz eta Espainiakoaz egin baititu eta ez hemengo historiaz. Ikastoletakoentzat ere ez letorke batere gaizki, zeren hauek jantziago etorri arren, puntu batzuk sakonkiago aztertzeke mesedegarri baulukete. Txangoak ere antola litezke xede hauek ditugularik gida.

Euskaldungaiet dihoakienean, berriz, gorago aipatu gehienak hauei ere badagozkie. Mailaketa, dosifikazioa desberdina beharko du, esate baterako, lehenik, Euskal Herriaren historiatik eta abestietatik abiatu beharko dugu hasi-masiak ikasten direino, aurreratu ahala literatura idatziari lotzeko. Hauekin batera, ezbairik gabe, garrantzitsuak dira testu pragmatikoak, aldizkari eta egunkarietakoak eta baita halaber euskal komunikabideek eskaintzen duten egokiera ere.

Amaitzeko eta Eguna-ko artikulua eskaini didan hariari jarraituz, egia bada ez dagokigula alternatiba politiko zehatzik aldarrikatzea eta haizerik ematea, ez da gezurrago, ezta ere, ez dagokigula profesionaltasunaren edo oker ulerturiko efikaziaren izenean erabateko neutraltasunik, ezinezkoa izateaz gain, erabat antzu gerta baitakiguke Euskal Herriaren berreuskalduntzerako.